

## ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA, C TALDEA

*1. ariketa.*

*1. proba*

*Galderak: 40.*

*Denbora, gehienez: 60 min.*

EREDUA:	C
---------	---

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
  - Asmatuak: 1,00
  - Hutsegiteak: - 0,33
  - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

**1- Oinarrizko zein eskubideren baitan kokatzen dira katedra, ekoizpen eta arte-sorkuntzarako eskubideak?**

- A) - Adierazpen askatasunaren baitan.
- B) - Ideologi eta erlijio askatasunaren baitan.
- C) - Hezkuntza-eskubidearen eta irakaskuntza-askatasunaren baitan.
- D) - Parte hartzeko eskubidearen baitan.

**2- Elkarreak berariazko erregistro batean inskribatu beharko dira...**

- A) - Eratzeari dagozkionetarako.
- B) - Legezketasunari dagozkionetarako.
- C) - Publikotasunari dagozkionetarako.
- D) - Sortzeari dagozkionetarako.

**3- Sindikatzea nahitaezkoa da...**

- A) - Lan egiteko eskubideaz baliatu ahal izateko.
- B) - Greba-eskubidea baliatzeko.
- C) - Indar Armatueta kideentzat.
- D) - Inoiz ez, Konstituzioaren arabera.

**4- Zein dira ordenamendu juridikoaren balore gorenak, Konstituzioaren 1. artikulua arabera?**

- A) - Askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna.
- B) - Askatasuna, berdintasuna eta justizia.
- C) - Askatasuna, berdintasuna, justizia eta aniztasun politikoa.
- D) - Askatasuna, berdintasuna, justizia eta elkartasuna.

**5- Nola gauzatzen dira Euskadiko botereak?**

- A) - Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren bitartez.
- B) - Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta lehendakariaren bitartez.
- C) - Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta, beren eskumenen esparruan, lurralde historikoetako foru diputazioen bitartez.
- D) - Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta lurralde historikoetako foru diputazioen bitartez.

**6- Nola osatuko da Eusko Legebiltzarra?**

- A) - Lurralde historiko guztiak ordezkari-kopuru bera izango dute; zeharkako sufragioaren bitartez hautatuko dira.
- B) - Populazioaren arabera ordezkari-kopurua izango du lurralde historiko bakoitzak; sufragio unibertsal, aske, zeharkako eta isilpekoaren bitartez hautatuko dira.
- C) - Lurralde historiko guztiak ordezkari-kopuru bera izango dute; sufragio unibertsal, aske, zuzen eta isilpekoaren bitartez hautatuko dira.
- D) - Legebiltzarkieek eta lehendakariak osatuko dute.

**7- Nolako sufragoia aurreikusten da Euskadiko Autonomia Estatutuan Eusko Legebiltzarreko kideak hautatzeko?**

- A) - Askea, unibertsala, isilpekoa eta berdina.
- B) - Askea, unibertsala, zuzeneko, pertsonala eta isilpekoa.
- C) - Askea, zuzena, pertsonala eta isilpekoa.
- D) - Askea, unibertsala, zuzena eta isilpekoa.

**8- Zein da hauteskunde-barrutia Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan?**

- A) - Udalerria eta probintziak.
- B) - Eskualdeak.
- C) - Lurralde historikoa.
- D) - Autonomia erkidegoa.

**9- Euskadiko autonomia erkidegoak eskumen eskusiboa du ondoko gaietan:**

- A) - Irakaskuntzaren alorreko fundazio eta elkarteak.
- B) - Artearen alorreko fundazio eta elkarteak.
- C) - Kulturaren alorreko fundazio eta elkarteak.
- D) - Aurreko guztietan, beren zereginak nagusiki Euskadin garatzen dituztelarik.

**10- 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, zerbitzu hauek eskaini behar dira, beti:**

- A) - Argiteria publikoa, hilerria, hondakin bilketa, kale garbiketa, etxeetara edateko ura hornitzea, estolderia, sarbidea, bide publikoen zolaketa, janari eta edarien kontrola eta parke publikoa.
- B) - Argiteria publikoa, hilerria, hondakin bilketa, kale garbiketa, etxeetara edateko ura hornitzea, estolderia, sarbidea, bide publikoen zolaketa, janari eta edarien kontrola eta ingurumena babestea.
- C) - Argiteria publikoa, hilerria, hondakin bilketa, kale garbiketa, etxeetara edateko ura hornitzea, estolderia, sarbidea, bide publikoen zolaketa, janari eta edarien kontrola eta gizarte zerbitzuak.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**11- Gasteizko Udalerri aplikagarri zaio Populazio Handiko Udalerrien Antolakuntza Erregimena; izan ere,...**

- A) - 250.000 biztanletik gorako populazioa du.
- B) - Probintzia-hiriburua da, eta 175.000 biztanletik gorako populazioa du.
- C) - Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua da.
- D) - b eta c erantzunak zuzenak dira.

**12- Udalerriak sortzea edo deusezte, baita udalerrien mugak aldatzea ere...**

- A) - autonomia erkidegoetako legedietan arautuko da.
- B) - legez galarazita dago.
- C) - estatuko legedian arautuko da.
- D) - udalerrri interesdunei entzun gabe egin daiteke.

**13- Udal erroldako inskripzioan datu hauek jaso beharko dira nahitaez:**

- A) - Izena, deiturak, sexua, ohiko bizilekua, nazionalitatea, jaioterria, jaiotza data eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia nazionalen kasuan, dena delakoak duen eskola-titulua eta hautesle errolda egiteko beharrezko diren datuak oro.
- B) - Izena, deiturak, sexua, ohiko bizilekua, nazionalitatea, jaioterria eta jaiotza data.
- C) - Izena, deiturak, nazionalitatea, jaioterria, jaiotza data eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia nazionalen kasuan.
- D) - Izena, deiturak, sexua eta nazionalitatea.

**14- Zeini dagokio udal errolda idaztea eta mantentzea?**

- A) - Probintzietako diputazioei.
- B) - Udalei.
- C) - Autonomia erkidegoei.
- D) - Estatuari.

**15- Zeinen eskumena da Lan Eskaintza Publikoa onestea, udalbatzak onetsitako langileen zerrenda eta aurrekontua aintzat harturik?**

- A) - Alkatearena.
- B) - Udalbatzarena.
- C) - Tokiko Gobernu Batzarrarena.
- D) - Gobernu Batzordearena.

**16- Jakinarazpenean jaso beharrekoa da...**

- A) - Errekurtsoak zein organori aurkeztu behar zaizkion.
- B) - Errekurtsoak aurkezteko epea.
- C) - Ebazpenaren testu osoa.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**17- Nola deitzen dira administrazio-dosierra ebatzi aurreko egintzak?**

- A) - Izapide-egintzak.
- B) - Behin betikoak.
- C) - Negoziagarriak.
- D) - Amaitze egintzak.

**18- Arrazoitu beharrekoak dira...**

- A) - Eskubide subjektiboak edo bidezko interesak mugatzen dituzten egintzak.
- B) - Presako izapidegintza aplikatzeko erabakiak.
- C) - Egintzak eteteko erabakiak, arrazoia edozein izanda ere.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**19- Noiz da administrazio-egintza singularra?**

- A) - Pertsona jakin bati dagokionean.
- B) - Pertsona multzo jakin bati dagokionean.
- C) - Pertsona multzo zehaztugabe bati dagokionean.
- D) - a eta b erantzunak zuzenak dira.

**20- Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan,...**

- A) - Eskabidean jarri duen tokian egingo da jakinarazpena.
- B) - Jakinarazpena gauzaterakoan inork ezin badu hura bere gain hartu, bizilekuan dagoen eta bere identitatea azaltzen duen edozein pertsonari emango zaio.
- C) - Jakinarazpena gauzaterakoan inork ezin badu hura bere gain hartu, hala jasoko da dossierrean, jakinarazpena gauzatzen saiatu zen egunarekin eta orduarekin batera.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**21- Zein da jakinarazpenak igortzeko epea?**

- A) - Hilabete.
- B) - Hamabost egun.
- C) - Hamar egun.
- D) - Hogeit hamar egun.

**22- Mailaz goragorik ez duten administrazio-organoen ebazpenek...**

- A) - Administrazio-bidea amaitzen dute.
- B) - Ez dute administrazio-bidea amaitzen.
- C) - Gorako errekurtsua aurkezteko aukera uzten dute.
- D) - Irmoak dira.

**23- Zein da gorako errekurtsua aurkezteko epea, egintza berariazkoa denean?**

- A) - Hamar egun.
- B) - Hamabost egun.
- C) - Hilabete.
- D) - Bi hilabete.

**24- Gorako errekurtsua...**

- A) - Egintza eman zuen organoari nahiz ebazteko eskumena duen organoari aurkez dakioko.
- B) - Egintza eman zuen organoari aurkezten zaio, eta haren azpikoak ebazten.
- C) - Goragoko organoari aurkeztu behar zaio, nahitaez.
- D) - Auzitegietan aurkezten da.

**25- Errekurtso-egileak okerreko errekurtsu-mota aukeratzen badu ere,...**

- A) - Errekurtsoa izapidetu egingo da, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.
- B) - Ezingo da izapidetu, eta itzuli egingo zaio errekurtsu-egileari.
- C) - Ez da eragozpenik izango izapidetzeko, baldin eta hilabeteko epean okerra zuzentzen badu.
- D) - Ez da eragozpenik izango izapidetzeko, baldin eta hamar eguneko epean okerra zuzentzen badu.

**26- Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka,...**

- A) - Nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- B) - Gorako errekurtsua aurkez dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- C) - Berrikusteko aparteko errekurtsua aurkez dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- D) - Nahi izanez gero, apelazio errekurtsua aurkez dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

**27- Berraztertzeko errekurtsua aurkezteko epea hauxe izango da, egintza berariazkoa bada:**

- A) - Hiru hilabete.
- B) - Hilabete.
- C) - Bi hilabete.
- D) - Hamabost egun.

**28- Zer alega dezakete interesdunek prozeduraren edozein urratsetan?**

- A) - Zenbait izapide ez egin izana, hori behin betiko ebazpena eman aurretik konpon badaiteke.
- B) - Izapidetze akatsak.
- C) - Epeak urratu izana.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**29- Prozedura amaitzeko ohizkanpoko bidea da...**

- A) - Administrazio-isiltasuna.
- B) - Berariazko ebazpena.
- C) - Eskubidearen oinarri den eskubideari uko egitea.
- D) - Itundutako amaiera.

**30- Prozeduraren antolakuntzan, interesdunek egin beharreko izapideak epe honetan egin beharko dira:**

- A) - Hamabost eguneko epean, jakinarazten zaienetik.
- B) - Hamar eguneko epean, jakinarazten zaienetik.
- C) - Hilabeteko epean, jakinarazten zaienetik.
- D) - Behar duten epean.

**31- Prozedura amaitzen dute...**

- A) - Ebazpenak.
- B) - Atzera egiteak.
- C) - Itundutako amaierak.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**32- Prozedura interesdunak eskaturik hasia bada, iraungi egingo da...**

- A) - Hari lepora dakioken arrazoiren bategatik gelditzen bada, hiru hilabeteren buruan.
- B) - Hari lepora dakioken arrazoiren bategatik gelditzen bada, bi hilabeteren buruan.
- C) - Hari lepora dakioken arrazoiren bategatik gelditzen bada, sei hilabeteren buruan.
- D) - Hari lepora dakioken arrazoiren bategatik gelditzen bada, hilabeteren buruan.

**33- Entzunaldi izapidean interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte...**

- A) - Gutxienez hamar eta gehienez hamabost eguneko epean.
- B) - Gutxienez hamar eta gehienez hogeit hamar eguneko epean.
- C) - Hilabeteko epean.
- D) - Bi hilabeteko epean.

**34- Honako hauek egin ahal izango dituzte kontratuak administrazioarekin:**

- A) - Jarduteko erabateko gaitasuna duten pertsona natural edo juridikoek, ekonomi, finantza eta teknika edo lanbide kaudimena egiaztatzen dutelarik.
- B) - Merkataritza Erregistroan izena emanda dauden pertsona natural edo juridikoek bakarrik, ekonomi, finantza eta teknika edo lanbide kaudimena egiaztatu eta behin-behineko bermea ezartzen dutelarik.
- C) - Atzerritar ez diren pertsona natural edo juridikoek, bermea jartzen dutelarik, kaudimena egiaztatzen ez badute ere.
- D) - Pertsona naturalek bakarrik, beren jatorrizko herrialdea edozein izanik ere.

**35- Kontratu jakin bat horretarako eskumenik ez duen administrazio-organo batek egiten duenean...**

- A) - Baliozkoa izango da gerora eskumena duen organoak berresten badu.
- B) - Delako organoak gerora beste kontraturik egiteko ahalmena galtzen du.
- C) - Kontratua deuseztu egiten da, eta kontratistak ez du kalteordainik jasotzeko eskubiderik izaten.
- D) - Kontratua erabat deuseza da.

**36- Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 2/2000 Errege Dekretuaren arabera, zerk ordeztu dezake kontratistaren ekonomi, finantza eta teknika edo lanbide kaudimena?**

- A) - Banku-abal batek.
- B) - Bermea ezartzeak.
- C) - Enpresaren sailkapenak.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**37- 2/2000 Errege Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ezingo dute administrazioarekin kontratatu...**

- A) - Porrot egoeran deklaraturako pertsonak.
- B) - Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak bete ez dituzten pertsonak.
- C) - Faltsutasun delituagatik kondenaturako pertsonak, epaia irmoa bada.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**38- Zeren bidez gauzatzen da kontratuen perfekzioa?**

- A) - Esleipenaren bidez.
- B) - Behin betiko bermearen bidez.
- C) - Lizitazioaren bidez.
- D) - Formalizazioaren bidez.

**39- Administrazio Publikoen kontratu txikiak...**

- A) - Beren xedeagatik bakarrik definitzen dira.
- B) - Material suntsikorra hornitzeko kontratuak bakarrik hartzen dituzte beren baitan.
- C) - Beren kopuruagatik bakarrik definitzen dira.
- D) - Ez da halakorik ageri kontratuen legean.

**40- Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 99. artikuluan arabera, lanpostuak betetzeko sistema arrunta hau da:**

- A) - Oposizioa.
- B) - Izendapen librea.
- C) - Oposizio-lehiaketa.
- D) - Lehiaketa.